

Irakurketa bultzatzeko kanpaina abiatu dute

Eusko Jaurlaritzak 'Munduan mundu asko daude. Irakur itzazu' izeneko kanpaina berria martxan jarriko du apirilaren 20tik aurrera irakurketa eta Euskadiko Liburutegien Sare Nazionaleko liburutegi publikoen zerbitzuak sustatzeko asmoz. Horrela, zenbait ekintzen bitartez, hala nola liburutegietako bazkideek obrak gomendatzea edota iragarkiak.

Gurutz Larrañaga Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak gogoratu du iaz aurkeztu zela liburutegien sarea, non 280 liburutegik herritarrei eskaintzen zaizkien 481.000 erregistro eta bi miloi ale partekatzen dituzten. Halaber, erabiltzaile karnet bateratua eskaintzen dutela ere gogoratu du.

Lehen urratsaren ondoren, irakurketa sustatzeko kanpainari ekingo diote, *“herritarren ohituren artean irakurtzeko ohitura sartzeko asmoz. Kulturatik aldenduago dagoen eta liburutegira joateko eta erabiltzeko ohiturari ez duen sektoreari zuzenduta”*